

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Asistentzia humanizatzea eta gaixoari eritasunari baino arreta handiagoa ematea, Osasun Mentalaren III. Planaren lehentasunak

*Esparru honetan 2019tik 2023ra bitartean jarraitu beharreko estrategia gidatuko duen agiriak 40 helburu bildu ditu 12 jarduketa-ildotan banatuta*

Ostirala, 2019.eko otsailak 8

Asaldura mentalak dituztenendako osasun-laguntza humanizatzea eta pertsonari eritasunari baino arreta handiagoa ematea dira Nafarroako [2019-2023ko Osasun Mentalaren Plan](#) berria gidatuko duten lehentasunezko printzipioak.

Halaxe jakinarazi du gaur Osasun kontseilari Fernando Dominguezek luze gabe Nafarroako Gobernuak onartuko duen agiriaren aurkezpenean. Dominguezekin batera izan den Osasun Mentaleko zuzendari kudeatzaile Begoña Flamariquek helburu, helmuga eta esku hartzeko ildo nagusiak azaldu ditu.



Begoña Flamarique eta Fernando Domínguez 2019-2023ko Osasun Mentalaren Planaren aurkezpenean.

Lehendabizikoen artean, eritasun mentalaren prebentzioa, esku-hartze goiztiarra, asaldura mentala larria duten pertsonendako baliabide sozial eta soziosanitarioen hobekuntza, suizidioaren abordatzea edota medikazio psikofarmakologikoaren senezko erabilera dira berariaz landuko diren erronketako batzuk.

Dominguez kontseilariaren esanetan, helburu hauek, "nafar gizarteari osasun sistema unibertsala irisgarria, ekitatiboa eta kalitatezkoa ematearen alde Gobernu honek hartu duen konpromiso estrategikoari erantzuten diote, pertsonen osasuna eta ongizatea osasun-arretaren erdigunean kokatzen duen sistema publiko baten barnean".

Bestetik, Begoña Flamariquek adierazi du, berritasun gisa, Plan honetan emaitzei buruzko 21 adierazle sartu direla helburuen erdian baino gehiagoren jarraipena eta betetze-maila egiaztatu ahal izateko. Adierazle horiei esker, zehaztasun osoz ezagutu ahal izan da abiapuntuko egoera, 2023an lortu beharreko helmuga finkatzeaz gain.

### Nafarroako 2019-2023ko Osasun Mentalaren III. Plana

Aurkeztutako agiriak jarraipena eman dio 2012-2016ko Osasun

Mentalaren II. Plan Estrategikoari, egun indarrean nahiz betetzeko zain dauden helburuetarantz aurrera egiteko asmoz.

Planak defendatzen duen arreta-eredu komunitarioak pazientea berreskuratu du helmugatzat, zainketen jarraikortasuna modu integralean aztertuko duten diziplina anitzeko taldeen laguntzaz, erabiltzailea erabakiak hartzeko prozesuan sartuz, horren autonomia sustatuz eta ebidentzia zientifiko erabilgarririk onenaz baliatzeko nahiz baliabideen erabilera eraginkorra egiteko konpromiso profesionalari eutsiz.

Horrez gain, erabiltzailearen beharretara egokitutako ospitalizazioko arreta-eredu malguagoa abian jartzea proposatzen du, eta horretarako, nahitaezkoa izango da arreta gizatiarragoa eta indibidualizatuagoa ematen lagunduko duen azpiegitura berri bat antolatzea.

Lau helmuga nagusi finkatu dira: herritarren osasuna hobetzea; pazienteen zainketa eta esperientzia hobetzea; Nafarroako Osasun Mentaleko Sarearen eraginkortasuna hobetzea, eta profesionalen inplikazioa eta gogobetetze-maila hobetzea. Horretarako, lau ekintza-ardatz zehaztu dira (eredu komunitarioa sustatzea, etxez etxeko nahiz landa eremuko arreta hedatzearen aldeko neurriak txertatuz; detekzio eta esku-hartze goiztiarra, psikosiaren lehen episodioetan esku hartzeko programa eredutzat hartuz; aldakortasun klinikoa murriztea; eta pertsona erdigunean duen arreta ematea), 12 ekintza-ildo eta 40 helburu zehatzekin batera.

Finantzaketari dagokionez, aurrekontu-hornidura 24 milioi euro inguru gehitzea aurreikusi da planak iraungo duen bost urteetan (391.368 euro 2019an; 2.186.751 euro 2020an; 10.150.751 euro 2021ean; 7.528.851 euro 2022an; eta 4.050.411 euro 2023an). Finantzaketa osagarri hau profesionalen plantilla birdimentsionatu beharrak, osasun-zerbitzu berriak sartu beharrak eta asaldura mental larria duten pertsonen premiei erantzuteko baliabide soziosanitarioen eskasiak eragin dute (azken hau Gobernuko beste arlo batzuei ere dagokie: Eskubide Sozialak, Enplegua, Etxebizitza edo Hezkuntza, besteak beste).

Plantillan 35 profesional gehiago sartzeari aurreikusi da, honako arlo hauei atxikitakoak: Psikologia Klinikoa (14), Psikiatria (6), Erizaintza (6), Terapia Okupazionala (3), Gizarte Lana (3), Administrazioa (1) eta Koordinazioa (1).

### **Elaborazioa eta herritarren parte-hartzea**

Plana lantzeko lehendabiziko pausoa, bertan garatu beharreko ildo eta ekintza nagusiak biltzen zituen “zero agiria” idaztea izan zen. Hau abiapuntutzat erabili zen ondoko parte-hartze prozesurako. Idazketa hiru iturritatik bildutako informazioan oinarritua egin zen, nagusiki:

-2012-2016ko Osasun Mentalaren Plan Estrategikoaren ebaluazioa

-Estatuan zein nazioartean dauden arauen azterketa dokumentala, beste herrialde eta autonomia-erkidego batzuetako plan estrategikoak ere aintzakotzat hartuz

-Plana lantzeko batzordeko kideen ekarpenak

Aldi berean, Gobernu Irekiaren bitartez parte hartzeko eredua bat diseinatu zen herritarrei ahotsa emateko (bereziki, sarearen erabiltzaileei eta senitartekoei, profesionaleri eta lanbide-elkarteei), honako hauek bilduz:

-Profesionaleri eta erabiltzaileei zein senitartekoei zuzendutako inkestak, “zero agirian” bildutako gai nagusiei buruz.

-Osasun Mentaleko Sareari atxikitako profesionalendako bi gogoeta-jardunaldi testua eztabaidatzeko eta behin-betiko planean sar litezkeen ekintza zehatzak proposatzeko. 25 profesionalak parte hartu zuten.

-ForoSalud topagunearen (Osasun Departamentuak Nafarroako osasuna hobetzeko diseinaturiko esparrua) edizio berri bat, hogeita hamar bat erabiltzaile, profesional eta elkarten ordezkari bildu zituena.

-Osasun Mentalaren Planaren lehen zirriborroa biltzen duen “1. Agiriaren” Erakusketa Publikoa Gobernu Irekiaren plataforman.

Partze hartzeko prozesuaren une desberdinetan bildutako proposamen eta ekarpenak aztertu eta egun aurkeztutako Planaren behin-betiko bertsioa taxutu zen. Guztira, 28 ekarpen jaso ziren, eta horietarik 15 onartu dira, hots, % 53,57. Onartu gabe gelditu direnen kasuan, arrazoi nagusia irizpide teknikoak eta inplementatzeko ebidentziarik edo eskuduntzarik eza izan ziren.